

IRRATIBUSA

**AUTOBUSEAN ERE,
EUSKARAZ BIZI!**



Amaia Abanzabalegi Bastida

AURKIBIDEA

1.	JUSTIFIKAZIOA ETA AZALPENA	2
1.1.	PROIEKTUAREN ASMOA	2
1.2.	PROIEKTUAREN HELBURUAK	2
1.3.	METODOLOGIAREN OINARRIAK.....	3
1.4.	EBALUAZIOA.....	4
2.	PROIEKTUAREN ARDATZA.....	4
2.1.	MOTIBAZIOA	4
2.2.	GAUZATZEA.....	5
3.	IRAKASLEEK ERABILTZEKO GIDA.....	9
3.1.	AURRELANA: MOTIBAZIOA.....	9
3.2.	GAUZATZEA.....	9
4.	BIBLIOGRAFIA.....	11

1. JUSTIFIKAZIOA ETA AZALPENEA

1.1. PROIEKTUAREN ASMOA

Ikastetxeko Euskaraz Bizi taldearen eskutik hainbat ikasturte daramatzagu *Irratibusa* proiektua bideratzen. *Irratibusa*, hain zuzen ere, ikasleek eskola-autobusean entzuten duten irratsaioa da, eta gure asmoa proiektu horren berri ematea da. Azken batean, irakasleak ekintza horren garrantziaz jabetzeko, eta, bide batez, ikasleak nola motibatu eta zertan lagundu ikusteko.

1.2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Azken urteotan zabaldutako kezka bati erantzuna emateko helburuarekin sortu zen *Irratibusa*. Izan ere, autobus-geltokian eta autobusean bertan gaztelaniaren erabilera zabaltzen ari zela ohartuta, guraso eta irakasle asko kezkatzen hasi ginen. Hori dela eta, euskararen erabilera sustatuko zuen proiektua sortzea erabaki genuen Euskaraz Bizi taldeko kideok. Beraz, proiektu honen helburu nagusia da euskararen erabilera bultzatzea ikastetxearen garraio-zerbitzua erabiltzen duten ikasleen artean. Horretaz gain, beste helburu hauek ere baditu:

- Ikasleak euskaraz biziitzea eskolatik kanpoko esparru batean; hau da, ikasleek autobus-geltokitik ikastolara egiten duten ibilbidean **euskaraz biziitzea**. Horrekin, beren ohiturak aldatzea lortuko genuke, eta, ondorioz, euskararen erabilera ohitura bihurtzea.
- Seigarren mailako ikasleekin **ahozkotasuna lantzea**. Horretarako, ahozkotasunaren alderdi garrantzitsuenak landuko ditugu. Azken batean, diskurtso egokiak sortzeko, ahozkotasunaren garrantzia azpimarratuko dugu: besteak beste, ebakera, lastertasuna, etenak, intentsitatea, tonua eta intonazioa landuko ditugu.
- Curriculumean aipatzen diren hainbat **edukiri erabilgarritasuna ematea**. Hau da, ikasleek ikasgelan tutoreekin landutako gaiak egunerokotasunerako ere baliagarriak direla ikustea.
- **Hizkuntzarekin jolastea**, ideiak eta sentimenduak adierazteko, komunikatzeko, irudikatze, ikasteko eta gozatzeko.
- Irakaslearen laguntzarekin, **teknologia berriek** ematen dituzten baliabideak **erabiltzea** (grabaketak egiteko, partekatze, beste formatu batzuetara pasatzeko...).

1.3. METODOLOGIAREN OINARRIAK

Orain dela urte batzuk, gure ikastolan Euskaraz Bizi taldea sortu genuen. Hasiera batean, hiru edo lau irakaslek osatzen genuen taldea; aurrera eramaten genituen ekintzetan, ordea, ikasleen parte-hartze eta motibazio falta sumatzen genuen. Gauzak horrela, ikasleak gure taldeko partaide bihurtzea erabaki genuen, eta 5. eta 6. mailako hamabi ikaslez osaturiko Eubizi taldea osatu genuen.

Talde horrek, urtean zehar, eginbehar ugari izaten ditu: euskararen erabilera areagotzeko motibazio-kanpainetan laguntzea, aretoko ekintzetan aurkezle-lana betetzea, gelaz gela informazioa banatzea... azken batean, sasoiari sasoi lanak egitea.

Irratibusaren ideia bururatu zitzaigunean, lehenengo hastapenak ikasle horiekin egitea erabaki genuen, talde horretako ikasleen motibazioa eta inplikazioa handia zelako. Horrela, 6. mailako sei ikaslerekin elkartu ginen, eta gure asmoa zein zen azaldu ondoren, proiektu hau martxan jartzea erabaki genuen. Garbi zegoen denon artean *esperimentatuz* eta eginez ikasten joango ginela.

Proiektu hau gauzatzeko, erabaki genuen gure metodologia elkarreaginean oinarrituko zela. Helburua ez zen izango sei ikasle horiek bakarrik trebatzea, baizik eta ikasle horien bidez sarea zabaldu eta 6. mailako ikasle guztiak inplikatzea. Horrela, hainbat irratsaio grabatu ostean, eta grabaketak dituen ezaugarriez jabetu ondoren, haiek izango ziren grabatu behar ziren irratsaioen buru eta arduradun.

Beraz, proiektuaren metodologiaren oinarriak hauek izan ziren:

- **Talde-lana sustatzea:** irakaslearen laguntzarekin, taldekide guztien parte-hartze zuzena bilatzea; hau da, **elkarreragina** sustatzea. Ildo horretatik, aberasgarria izan zen ikasleek alde aurretik ikasitakoa beste lagunekin partekatzea (sarea zabalduz joan ginen). Horrela, 6. mailako ikasle guztiek irratsaioa grabatzeko aukera izan zuten.
- **Ikaskuntza esanguratsua izatea:** ikasleen aurrezagutzak kontuan harturik, alegia, gelan lantzen dituzten edukiez baliatuta, eduki horiei erabilgarritasuna ematea.
- **Ikasleen jokabide aktiboa sustatzea:** ikasleak izan ziren proiektu horren protagonista; eta, horri esker, beren autoestimua hobetuko litzateke.
- Beste ikasleei erakustea zer ikasi zuten, eta horrekin **gozatzea**.

1.4. EBALUAZIOA

Kontuan hartu behar da proiektu hau ez dela eskolako beste edozein alorretako proiektu bat, baizik eta eskolaz kanpoko testuinguruarekin lotutakoa, beraz, ebaluazioari dagokionez, ez da egokia normalean eskolako ikasgaiekin erabiltzen ditugun ebaluazio-txostenak erabiltzea. Gorago aipatu bezala, ikasgelatik kanpoko egoera bati irtenbidea emateko sortutako proiektua izan zen. Hazteko eta ikasteko baliagarria izango den proiektua da, eta, beraz, proposatutako ebaluazio mota honako hau da:

- Ikasleen **autoebaluazioa**: irratsaio bakoitza grabatu ondoren, entzun egingo dugu. Ontzat emandakoan, aurrera egin, eta autobus-bidaian entzuteko prest utziko dugu grabazioa, dagoen moduan. Hurrengo saioetan, ahozkoitasunaren inguruko hainbat puntu ikusi eta landu ondoren, grabaketa berriak egingo ditugu. Momentu hori erabiliko dugu nork bere ebaluazioa egiteko; hots, hasierako grabazioa eta azken horren arteko diferentziak edo hobekuntzak aztertuko ditugu, eta, modu horretan, ikasleak izango dira beren aurrerapenak atzemango dituzten lehenak. Bestalde, aurrerapen horiek kontuan izanda, hurrengo saioetan zer aldatu, moldatu edota mantendu erabakiko dugu.
- Entzuleen ebaluazioa: proiektu honek egile batzuk baditu ere, autobuseko bidaiariak izango dira parte-hartzaile pasiboak, eta, alde horretatik, beren iritzia edo ebaluazioa ere baliagarria izango da. Horretarako, propio, ikastolako aretoan postontzi bat jarriko dugu, eta, bertan entzuleek beren iritzia eta iradokizunak emateko aukera izango dute. Kritika edo iritzi horiek kontuan izanik, hurrengo irratsaioetan hobekuntzak integratzen saiatuko gara.

2. PROIEKTUAREN ARDATZA

2.1. MOTIBAZIOA

Garrantzitsua izango da, halako proiektu bat martxan jartzeko, ikasleen parte-hartzea, eta, horretarako, beharrezkoa izango da haien motibazioa eta inplikazioa lortzea. Kasu honetan, gure ikastetxeari dagokionez, proiektu honi ekiteko, Euskaraz Bizi taldeko lagunak elkartu ginen; azken batean, euskara sustatzeko helburuarekin sortutako proiektu bat zenez, ikasleen motibazioa nahiko handia zen, eta, gainera, haiek aurkeztu zuten beren burua boluntario talde horretan parte hartzeko. Hori dela eta, proiektua martxan jartzea eta gauzatzea errazago egin zitzaigun.

Taldea osatu eta *Irratibusaren* asmoa azaldu ondoren, **ideiak jasotzen** hasiko gara; hau da, ikasleek irratsaioen inguruan duten informazioa biltzen joango gara. Kontuan hartu behar dugu gelan tutoreekin landutako gaia dela; beraz, beren aurrezagutzetan oinarrituko gara proiektua martxan jartzeko orduan. Horrek, moduren batean, ikasleak motibatzeke balio izango digu, eskolan ikasitakoa kanpo-jarduera edo eguneroko ekintza batean aplikatzeko aukera emango baitie. Horretarako, era honetako galderak jarriko ditugu mahai gainean:

- **Zein dira irratsaio baten atalak?**
- **Zer eratako musika erabiliko dugu sintonian? Zein izan daiteke?**
- **Zer eratako gaiez hitz egin dezakegu?**
- **Non bilatu dezakegu informazioa?**
- **Nola idatziko ditugu gidoiak?**

Bururatzen zaizkigun ideia horiek guztiak arbelean idatziko ditugu, eta proiektua aurrera doan heinean, ideia berriak gehitzen joango gara. Momentu horretan, gidoia ondo idaztearen garrantziaz ohartuko gara.

Ondoren, **arloteknikoa** aztertuko dugu. Gaur egungo gazteengan teknologia berriek eragiten duten interesa oso altua da, eta horrek ere haien motibazioa sustatzeko balioko digu. Horretarako, grabaketak nola egin ditzakegun aztertuko dugu, eta, erabakiak adostu ondoren, autobusetara iritsi arte nola bideratu aztertuko dugu: nola partekatu, nola bidali posta elektronikora, nola pasa USBra, eta abar.

Ikasleak gehiago motibatzeke, eta, era berean, ordura arte ikasitakoa besteekin partekatzeko, azpitaldeak eratu daitezke, eta, gainera, talde berri horien buru eurak izango dira.

Bestalde, ikastolako bidaiari guztien motibazioa lortzeko, beren aditasuna mantentzeko eta parte-hartzea areagotzeko, arestian aipatu bezala, postontzi bat jarriko dugu ikastolako aretoan. Bertan, bidaiarien erantzun eta iradokizunak jasoko ditugu.

2.2. GAUZATZEA

Behin proiektuaren nondik-norakoak aztertuta, eta ideiak antolatu ondoren, proiektua gauzatzeari ekingo diogu.

- Hasteko, **gelatxo** edo txoko aproposa topatu beharko dugu elkartzeko, eta **noiz** elkartzeko garen adostuko dugu. Gure ikastetxearen kasuan, hainbat proposamen aztertu ondoren, jolas-ordu eta bazkalosteko saioak aprobetxatuko genituela erabaki genuen (ez egunero, noski).

- Hurrengo pausoa irratsaioetako gaiak jorrazteko behar dugun **materiala** aztertzea izango da. Horretarako, uste dugu ikastolako liburutegian dagoen materiala egokia eta baliagarria izango dela. Bertan, asmakizun-liburuak, lotara joateko ipuinak, txiste- eta asmakizun-liburuak, errezetak,



Eibarko eta munduko bitxikeriak eta abar jasotzen dituzten liburu egokiak topatzen saiatuko gara. Gure ikastetxearen kasuan, *Txikitto*, Eibarko gaztetxoentzat argitaratzen den aldizkaria, primerako materiala iruditu zitzaigun gure helburua betetzeko, bertan oso material interesgarria aurkitzen baitugu.

- Behin materiala nondik eta nola eskuratu erabakita, materiala bera ondo aztertuko dugu, alegia, benetan baliagarria izan daitekeena erabili eta bestea baztertu. Azkenik, material horrekin, irratsaioen gaiak sailkatzera eta zerrendatzera pasatuko gara.
- Hurrengo pausoa irratsaioaren **gidoia idaztea** izango da. Horretarako, gidoi baten zatiak zein diren aztertuko dugu:
 - sintonia
 - agurra
 - gaiak (txisteak, asmakizunak, errezetak, ipuinak, abestiak, bitxikeriak...)
 - agurra edo amaiera
 - sintonia

Zatiak aztertzean, gaien artean musika tarte laburrak txertatzea proposatuko diegu ikasleei.

- Gidoia idatzitakoan, **ahozkotasuna landuko** dugu. Aurretik egindako lan guztia garrantzitsua da, baina une honetan beste hainbat elementuk hartuko dute garrantzia; hau da, prestatutako gidoiari bizia eman beharko zaio. Horretarako, ikasleei erakutsiko zaie nola ahoskatu, nolako intonazioa erabili, zein izan daitekeen ahotsaren bolumen egokiena, irakurtzean etenak non egin eta, bukatzeko, lastertasunaz nola baliatu.

Kontuan izan lan hori zaila izango dela, baina azpimarratu behar dugu entzuleek ez gaituztela ikusiko, eta, ondorioz, ahotsarekin jolastu behar dugula guk adierazi nahi duguna haiek ondo uler dezaten.

Hori guztia kontuan izanik, txisteak, asmakizunak, ipuinak... kontatu behar ditugunean, bakoitzari dagokion erregistroa erabiltzearen garrantzia azpimarratuko dugu; hau da, barre-algarak nola egin, tristura adierazi behar dugunean zer tonu erabili, galderazko eta harridurazko perpausak irakurtzeko zer intonazio erabili, suspensea nola adierazi, eta abar.



- Ondorengo pausoa gidoia hainbat zatitan banatzea izango da. Bakoitzak bere zatia argi izan ondoren, entseguen hasiko gara. Ikasleak eroso sentitu arte errepikatuko dugu lan hori. Horrela, gure protagonistek hori dena menperatzen dutenean, grabaketa-lanari ekiteko prest egongo gara.

- Nola grabatu? Hainbat baliabide aztertu ondoren, sakelako telefonoa erabiliko dugu (gure kasuan modurik errazena iruditu zitzaigun, baina beste edozein baliabide erabili daiteke). Beraz, bakoitzaren txanda errespetatuz, gure irratsaioak grabatzen hasiko gara. Gainera, momentu bakoitzean erabili behar dugun musika eskura izateko, mahaigaineko ordenagailuan prest izango ditugu tarte bakoitzerako musika edo soinuak.



- Grabazioarekin bukatutakoan, ikasleentzat oso motibagarria den unea iritsiko da; hain zuzen, grabatutakoa entzun eta aztertzea. Momentu hori beren balorazioak egiteko eta entzuteko erabiliko dugu. Ikustekoak izango dira haien aurpegiak eta iskanbila. Hasierako lotsa guztiak gainditzen eta egindakoa baloratzen ikasiko dute; berehala konturatuko dira egindako lana oso ederra dela, eta harro sentituko dira.



- Hori guztiori egin ondoren, grabaketa sakelako telefonotik posta elektronikora bidaliko dugu, deskargatu, eta USB batean kopiatu. Gure lehen irratsaioa bukatuta izango dugu eta martxan jartzeko prest.
- Hasierako lau irratsaio horiek grabatzeko erabiliko dugun estrategia antzekoa izango da; hona hemen horiek egiteko erabil daitezkeen adibideak:
 - Lehendabizikoak musikarekin zerikusia izan dezake; entzuleek abesti bat entzun eta haren izenburua eta taldearen izena asmatu beharko dute (grabatzeko errazena iruditu zitzaigun eta entzuleak erakartzeko aproposena).
 - Bigarrena, asmakizun sorta izan daiteke. Grabaketa horretan, sintonia txertatzen joango gara (ikasleen teknika garatzeko aproposa iruditu zitzaigun).
 - Ipuin-kontaketa izan daiteke hirugarren irratsaioaren edukia. Grabaketa horretan, ahotsaren lanketari emango diogu garrantzia; ondorioz, denbora gehiago emango dugu entseguetan. Merezi izango du!
 - Laugarrena, txiste-zaparrada izan daiteke.

- Gure lanarekin pozik gaudenean, autobusetan martxan jartzea falta zaigu. Lan horretarako, autobuseko begiraleekin harremanetan jarriko gara, haiek izango baitira autobusetan USBa jartzeaz arduratuko direnak. Beharrezkoa da gure proiektua ahalik eta modu erakargarrienean azaltzea, eta begiraleen inplikazioa lortzea. Modu horretan, astean hiru edo lau aldiz jartzea izan daiteke aproposena.



- Hurrengo asteetan irratsaio gehiago grabatuko ditugu: herriko bitxikeriak, errezetak, munduko bitxikeriak, "ba al dakizu?" galdera-sorta...

- Azken erronkari aurre egiteko prest egongo gara, eta ikasle bakoitzak bere taldetxoa sortuko du. Modu horretan, sarea zabaltzea lortuko dugu, eta, agian, 6. mailako ikasle guztiak grabaketa-lanetan murgiltzea lortuko dugu.



3. IRAKASLEEK ERABILTZEKO GIDA

3.1. AURRELANA: MOTIBAZIOA

ARDATZA	JARDUERAK
Euskaraz Bizi taldeko lagunak elkartu eta, Irratibusaren asmoa azaldu ondoren, ideiak jasotzen hastea; hau da, irratsaioen inguruan duten informazioa biltzen joatea.	Botatzen ditugun ideia horiek guztiak arbelean idaztea: <ul style="list-style-type: none"> • Zein dira irratsaio baten atalak? • Zer eratako musika erabiliko dugu sintonia bezala? Zein izan daiteke? • Zer eratako gaiez hitz egin dezakegu? • Non bilatu dezakegu informazioa? • Nola idatziko ditugu gidoiak?
Arlo teknikoa aztertzea: grabaketak nola egin aztertzea.	Haien kideen laguntza eta ideiak jasotzea: <ul style="list-style-type: none"> • Nola grabatu genezake? • Nola bideratu autobusetara? • Nola partekatu? • Nola bidali posta elektronikora? • Nola pasa USBra?
Azpitaldeak sortzea eta taldetxo berri horien buru haiek izango direla aipatzea.	Bakoitzaren gelara joatea eta boluntarioak eskatzea beste irratsaio batzuen grabaketan parte hartzeko.

3.2. GAUZATZEA

ARDATZA	JARDUERAK
Gelatxo edo txoko aproposa topatzea eta noiz bilduko garen adostea.	
Irratsaioetarako gaiak jorrazteko behar dugun materiala aztertzea.	Liburutegira joan eta bertan dagoen materiala aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • asmakizun-liburuak • lotara joateko eta dastatzeko ipuinak • txiste- eta asmakizun-liburuak • errezetak • herriko eta munduko bitxikeriak • herrian gaztetxoentzat argitaratzen den aldizkaria • ...
Gidoia idaztea : gidoi baten zatiak zein diren	Denon artean gidoi baten zatiak zein diren aztertzea:

aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● sintonia ● agurra ● gaiak (txisteak, asmakizunak, errezetak, ipuinak, abestiak, bitxikeriak...). Horien artean musika txertatzea ideia ona izan liteke ● agurra edo amaiera ● sintonia
Ahotsarekin jolastea: prestatutako gidoiari bizia ematea eta, horretarako, aukeratutako gaia irakurtzea (intonazio, bolumen eta ahoskera ugari erabiltzea).	<p>Hori guztia kontuan izanik, txisteak, asmakizunak, ipuinak... kontatu behar ditugunean, bakoitzari dagokion erregistroa erabiltzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Barre-algarak nola egin. ● Tristura adierazi behar dugunean, zer tonu erabili. ● Galderazko, harridurazko perpausak... irakurtzeko zer intonazio erabili. ● Suspensea nola adierazi. ● ...
Talde-lana antolatzea.	Ikasle bakoitzari dagokion gidoi-zatia banatu eta, bakoitzak bere zatia argi izan ondoren, entsegu ekin hasia.
Grabaketak egitea.	Sakelako telefonoa erabiliz, grabaketa-lanak egitea, bakoitzaren txanda errespetatuz. Momentu bakoitzean erabili behar dugun musika eskura izateko, mahaigaineko ordenagailuan prest uztea dena eta grabatzea.
Grabaketa zabaltzea.	Sakelako telefonotik posta elektronikora bidali, deskargatu, eta USB batean kopiatzea.
Proiektua autobusetan martxan jartzea. Ikastolako bidean, autobusean, irratsaioak entzutea .	Begiraleei gure proiektua azaltzea eta astean hiru edo lau aldiz jartzeko adostea. Astean hiru edo lau aldiz irratsaioak entzutea.
Ikasleak ahalduntzea.	Ikasle bakoitzak bere taldetxo a sortzea eta azpitaldeak egitea, ikasitakoa transmititzeko: saio bakoitzaren edukia erabakitzea, liburutegian materiala aukeratzea, gidoiak idaztea, eta txandaka grabaketak egitea.

4. BIBLIOGRAFIA

- ALFARO, Angelita: *Sukaldaritza berdea: entsaladak, barazkiak eta lekaleak*, Ttarttalo, Donostia, 2013.
- AMONARRIZ, Kike: *888 txiste: txorakikeriak 4*, Argia, Donostia, 2004.
- DANN, Penny; ARREGI, Manuel: *Irakurriko al didazu ipuin bat, mesedez?*, Ttarttalo, Donostia, 2002.
- EIZAGUIRRE, Belén; NADAL, M^a Isabel; NAVAS, Juan Pablo; KEREJETA, Mari Joxe: *Betiko ipuinak I-II*, Aizkorri, Bilbo, 2001.
- FRITH, Alex; LACEY, Minna; MARTIN, Jerome; MELMOTH, Jonathan; MARIANI, Federico; MARTIN, Jorge; IRAZUSTABARRENA, Nagore: *100 kontu ondo ezagutzeko Zientzia!*, Ttarttalo, Donostia, 2015.
- HEDELIN, Pascale: *Piztia txikiak. Wakou, naturari buruzko nire entziklopedia txikia*, Ttarttalo, Donostia, 2016.
- IGERABIDE, Juan Kruz: *Zaku bete hauts, euskal herriko maitagarri ipuinak*, Aizkorri, Bilbo, 2007.
- IRIOGUREN, Amaia; MURUA, Mitxel: *Pirritx eta Porrotx sukaldean errezetak-ipuinak*, Elkar, Donostia, 2008.
- IRUSTA, Antton; MORENTE, Enrique; URKULO, Iraitz: *Euskal Herriko kondaira onenak*, Susaeta, Madril, 2013.
- LOPEZ, Juan; MENDIGUREN, Xabier: *300 igarkizun euskaraz*, Susaeta, Madril, 1996.
- RUYER, François; SARASOLA, José Antonio: *Lotarakoan jateko ipuinak*, Ttarttalo, Donostia, 2002.
- RUYER, François; SARASOLA, José Antonio: *Lotarakoan dastatzeko ipuinak*, Ttarttalo, Donostia, 2002.
- SAENZ DE OIARZABAL, Maite; BARRENA, Saionara; LASA, Iñaki; LEKUONA, Iñaki; OIARBIDE, Joxi: *Txanela proiektua*, Elkar, Donostia, 2011.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Txikitto* aldizkaria. Eibarko "Eta Kitto" Euskara Elkartearen argitalpen zerbitzua, Eibar, 2016.